

Bilboko Kotsulegoa (2)

Deia, 1983-08-20.

Bilboko Kotsulegoaz atzo esandakoak ez ziren sarrera gisa emandako datuak besterik izan.

Aipa dezagun orain Kotsulegoak berak lehen eman zuen agiria: Hendrike IVgarrenaren seinalea emana zegoenez, 1511ean sortzen da Kotsulegoak berez emandakoa; paper honen atzetik hor zeuden dagoeneko mundu osoan ezagunak ziren gizonak, bai "ontzi maixu" bezala, eta baita merkatari gisa ere. XIVgarrengo mendearekin hasi zen, bada, Kotsulegoa ofizialtasunen batez indartzen. Baina ez zuen zorianak gehiegi iraun: Gerra sortu zen Espainia alde batetik eta Europako nazio merkatariak bestetik, eta Flandesko merkatua itxi zitzaigun; Korsarioen gerra piztu zen, bestalde, eta 1585ean Ingalaterrarekin genituen harremanak berriro gelditu ziren; Drake sonatuaren espedizioa irten zen Espainiaren aurka; *Armada Invencible*-ren ondamenak (1538) kalte handiak ekarri zituen; "ia Bilboko flota osoa" galdu bai zen. Harrez gero Euskal Herriko kosta guztia babes gabe geratu zen eta Ingelesak nagusitu ziren neurri batean Bilboko merkatalgoaz.

Bilboko portua beti irekia zegoen lur guztietako ontzientzat; hau printzipioz, Kotsulegoaren hastapenetako lema bai zen: "Askatasuna nagusi dute herriak dira nagusitzen direnak".

Hala ere, laster hasi zen Estatua eskua sartzen, eta Burgosekin ohizko problemak jarraitu zuten; bestalde, Espainiak motelarazi zituen Ameriketarekin genituen harremanak. Korsarioek asko jaitsi arazi zuten trafikoa, eta hala onartua zen 1588garrengo urtean Bizkaiko burdin eta galtzairua *bertako ez ziren ontziz ere garraiatu ahal izateko erabakia*.

Untzigintza oso ongi zihoan, bestalde, ibaiaren kanala untzigindegiz beterik zegoen eta untzi handiagoak egiten ere hasi ziren.

Merkataritza XVIIgarrenean oraindik gehiago jaitsi zen; espainolak Herbeherean (Paises Bajos) egindako indarkeriak eraginda, askatasun gehiago zegoenera ihesi joan zen jendea; intolerantziak arerioari lagundu zion, Holanda indartu zen; Felipe IIgarrena eta IIIgarrenak ez zuten kemenik izan hau zanpatzeko, eta Frantzia eta Ingalaterraren aurkako gerra sortu zenean, gutxiago XVIIIgarrenean Bilboko kontratazioa behera joan zen gerraren beldur.

Makailoaren merkataritzak garrantzi handia hartu zuen XVIgarrenean, eta XVIIgarrenean ere jarraitu zuen, Kotsulegoaren eraginari esker. Sasoi honetan Donibane Lohitzun eta Ziburukoekin harreman anaikorrak izaten jarraitu zuten.